

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun-zenbakia: **41**
Nork aurkeztu du: **Garbiker, M.P.A.B, S.A**
Aurkezpen data: **2022/02/08**

Sugerencia N°: **41**
Presentada por: **Garbiker, M.P.A.B, S.A**
Fecha de presentación: **08/02/2022**

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Eskatu dute Garbikerrek Ortuellan jabetzan dituen zoruak ingurumenaren hobekuntzako kategoriatik kentzeko, ez direlako egin Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak eskatzen dituen zigilatze-lanak eta ingurumena lehengoratzekoak.
2. Eskatu dute Garbikerren jabetzako zoruen dokumentazio grafikotik zabortegei eta harrobiei buruzko erreferentziak kentzeko, ez datozelako bat egungo errealitatearekin.
3. Proposatu dute aldatzea 42. artikulua (lurpeko akuiferoak), 88.a (ekonomia zirkularra: hondakin-kudeaketa) eta 89.a (ekonomia zirkularra: lurzoru-baliabidearen kudeaketa), zigilatutako zabortegeien gainean baldintza hauek betetzen dituzten jarduerak ezarri ahal izateko: zorura kutsatzaileak isur ditzaketen jarduerak ez izatea eta lurpeko urei kalterik sortuko ez zaiela bermatzea; hori guztia, LA-Gen 17. eta 18. artikuluen babesean.
4. Eskatu dute Garbikerrek Ortuellan jabetzan dituen baso-masarik gabeko zoruetatik «onura publikoko mendi»ei buruzko erreferentzia kentzeko, ez datorrelako bat egungo errealitatearekin.

IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. Iradokizunarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta eremu horren egungo errealitate fisikoa aztertu ondoren, egiaztatu da ingurumenaren hobekuntzako kategorian sartutako zoruak La Orkonera zabortegearen eremuaren barruan daudela. Zabortege hori behar bezala zigilatu da eta bertan, ingu-

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. Se solicita eliminar la categorización de mejora ambiental de los suelos propiedad de Garbiker en Ortuella, por haberse realizado las obras de sellado y recuperación ambiental exigidas por el Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.
2. Se pide que se elimine de la documentación gráfica la referencia a vertederos y canteras en los suelos propiedad de Garbiker, por no adecuarse a la realidad actual.
3. Se propone la modificación de los artículos 42 (acuíferos subterráneos), 88 (economía circular: gestión de residuos) y 89 (economía circular: gestión del recurso suelo) para permitir la implantación, sobre vertederos sellados, de actividades que no sean potencialmente emisoras de contaminantes al suelo y que garanticen la inocuidad para las aguas subterráneas, todo ello al amparo de los artículos 17 y 18 de las DOT.
4. Se solicita que se elimine la referencia a "Montes de Utilidad Pública" en los suelos de propiedad de Garbiker en Ortuella que no tienen masa forestal, por no ser acorde con la realidad actual.

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. Una vez analizada la documentación aportada en la sugerencia y la realidad física actual del ámbito, se constata que los suelos categorizados como Mejora Ambiental están ubicados dentro del ámbito del vertedero de La Orkonera, el cual ha sido correctamente sellado y recuperado ambientalmente, según





rumena ere lehengoratu da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko azaroaren 13ko Ebazpenak jasotzen duen moduan. Horrela, bada, ez dago inolako arrazoirik iradokizuaeren xede diren lurzoruak ingurumenaren hobekuntzako kategorian sartzeko, eta, horrenbestez, lurzoru horiek kategoria horretatik kenduko dira eta sistema orokor gisa mugatuko dira grafikoki, Garbikerren jabetzako gainerako lurzoruekin bat.

2. Egungo erabilera eta jarduerak eta errealitate fisikoa aztertu ondoren, egiaztatu da La Orkonera eremuan ez dagoela martxan dagoen harrobirik, ezta zabortegirik ere, eta, horrenbestez, bidezkoa da iradokizuna onartzea.

3. Nahiz eta LAGek debekatu egiten dituzten «zakartegiak eta hondakin solidoak biltegitartzeko espazioak» akuiferoak urrakorrak diren eremuetan, 17. artikulua (ekonomia zirkularra: hondakinen kudeaketa) eta 18. artikulua (ekonomia zirkularra: lurzoru, baliabide gisa) lehentasuna ematen diote lehendik dauden azpiegiturak berrerabiltzeari, eta beren beregi aipatzen dituzte «zabortege zahar zigitatuak, azpiegitura edo ingurumen-ekipamendu bezala kalifikatu beharko direnak».

LAGen II. eranskineko 2.b.1a apartatuaren arabera, hartzen den «irizpide orokorra izango da lurzorurako kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak ez kokatzea» «akuiferoen urrakortasuna» baldintzatzaile gainjarriaren eraginpean dauden zoruetan. Hala ere, beste hau ere adierazten da: «ezinbesteko arrazoiengatik jarduera mota bertan kokatu behar bada, lur azpiko urei kalterik ez sortzea bermatzeko eskatuko dugu».

Zehaztapen horien baterako irakurketatik, ideia hau ateratzen da: LAGek onartu egiten dute hondakinak tratatzeko instalazio bat jartzea akuiferoen kutsadura gerta daitekeelako urrakorrak diren eremuetan, baldin eta lehendik dauden azpiegiturak berrerabiltzen badira (17. eta 18. artikulua) eta lurpeko urei kalterik sortuko ez zaiela bermatzen bada (II. eranskina, 2.b.1.a apartatua).

Hortaz, LAGekin bat etortzeko, LPPren aplikazio-arauetan honako aldaketa hauek egingo dira:

recoge la Resolución de 13 de noviembre de 2015 del Viceconsejero de Medio Ambiente del Gobierno Vasco. Por ello, no existe ninguna razón para calificar como Mejora Ambiental los suelos objeto de la sugerencia, por lo que se procederá a eliminar dicha categorización y se delimitará gráficamente como Sistema General, acorde con el resto de suelos propiedad de Garbiker.

2. Estudiada la realidad física y los usos y actividades actuales, se constata que en la zona de La Orkonera no existe ninguna cantera activa ni vertedero, por lo que procede estimar la sugerencia.

3. Si bien las DOT establecen la prohibición de “escombreras y espacios para el depósito de residuos sólidos” en zonas con vulnerabilidad de acuíferos, sus artículos 17 (economía circular: gestión de residuos) y 18 (economía circular: el suelo como recurso) priorizan la reutilización de infraestructuras preexistentes, mencionándose explícitamente los “antiguos vertederos sellados, que deberán ser calificados como infraestructuras o equipamientos ambientales”.

El apartado 2.b.1.a del Anexo II de las DOT, por su parte, adoptan el “criterio general de evitar la localización de actividades potencialmente emisoras de contaminantes al suelo” en suelos afectados por el condicionante superpuesto de “vulnerabilidad de acuíferos”. No obstante, también se indica que, “cuando razones de fuerza mayor exijan la localización de este tipo de actividades, se exigirá la garantía de su inocuidad para las aguas subterráneas”.

De la lectura conjunta de estas determinaciones se extrae la idea de que las DOT permiten la instalación de una planta de tratamiento de residuos en áreas vulnerables a la contaminación de acuíferos, siempre que suponga la reutilización de infraestructuras ya existentes (art. 17, 18) y se garantice su inocuidad para las aguas subterráneas (Anexo II, 2.b.1.a).

Por lo tanto, para estar en consonancia con las DOT, en las normas de aplicación del PTP se realizarán las siguientes modificaciones:





- 42. artikulua: Planaren jarraibideen a) eta b) apartatuak ezabatzen dira eta LAGen II. eranskineko 2.b.1.a puntua gehitzen da.
- 88. artikulua: LAGen 17. artikuluko 3. puntua gehitzen da.
- 89. artikulua: LAGen 18. artikuluko 1. puntua gehitzen da.

- Art. 42: Se suprimen los apartados a) y b) de sus directrices y se incluye el punto 2.b.1.a del anexo II de las DOT.
- Art. 88: Se incluye el punto 3 del art.17 de las DOT.
- Art. 89: Se incluye el punto 1 del art. 18 de las DOT.

4. Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, iradokizunen fase honetan, onura publikoko mendien geruza eguneratu bat aurkeztu du; geruza horrek ordezkatu egingo du hasierako onespén-dokumentuan jasotakoa, GeoEuskaditik ateratakoa. Geruza berri horretan, iradokizunaren xede diren lurzorua ez daude baldintzatzaile gainjarri horren eraginpean, eta egoera hori horrela jasoko da behin-behineko onespén-dokumentuaren dokumentazio grafikoan.

4. El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia ha aportado, durante esta fase de sugerencias, una capa actualizada de los Montes de Utilidad Pública, la cual sustituirá a la recogida en el documento de aprobación inicial, que procedía de GeoEuskadi. En esta nueva capa, los suelos objetos de la sugerencia no están afectados por este condicionante superpuesto, y así se recogerá en la documentación gráfica del documento de aprobación provisional.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

